

## Arreta goiztiarreko zerbitzua (0-3 urteko haurrak).

**Prestazio mota:** Bermatua.

**Baliabide mota:** Arreta anbulatorioko zerbitzua.

**Baliabidearen xedea:** Garapeneko arazoak dituzten edo edukitzeko arriskua duten haurren beharrei, aldi baterako izan nahiz iraunkorrak izan, erantzuna emateko **estimulazio eta errehabilitazio programak** ematen dituen zerbitzua.

**Onuradunak:** Oтик 3 urtera bitarteko haurrak.

**Jasotzeko baldintzak:**

- Nafarroan bizitzea.
- **Garapeneko edozein zailtasun, nahaste edo arazo izatea, edo izateko arriskuan egotea.**
- Familiaren konpromisoa baldintzak, ordutegia eta erregularitasuna onartzeko.

**Zerbitzua irekita:** urteko lan egun guztietan, astelehenetik ostiralera.

**Arreta emateko tokia:** Iruña eta Iruñerria, iparraldea, Altsasu, Tafalla. Lizarra, Zangoza eta Tutera.

**Zerbitzuaren intentsitatea:** Programa harrera eta lehen balorazio fasearekin hasiko da, eta banakakoaren arreta plan bat diseinatuz, laguntza beharrak, helburuak, bete beharreko jarduerak eta horien intentsitatea barne hartuta.

- Balorazioa, haurraren garapen ebolutiboaren eta familiaren egoeraren jarraipena, esku-hartze medikoa, psikologikoa eta soziala: sei hilean behin.
- Hamabostean behin, 45 minutuko saio bat, jarduera hauekin: psikomotrizitateko esku-hartzea, fisioterapiakoa eta logopediakoa.

**Emateko epea:** Hilabetea.

**Ordainketan parte hartzea:** Ez.

**Jarduteko eremua:**

Nafarroako Foru Komunitatea.




---



---



---



---



---



---



---



---



---